


Non egiten du?

- Aita, non egiten du kukuak habia?
- Txantxangorri-habian lapurtuz tokia, trala-lara lapurtuz tokia.
- Ama, non egiten du pospolinak habia?
- Gari-soro erdian poliki jarria, trala-lara poliki jarria
- Aita, non egiten du txepetxak habia?
- Gaztain-zulo gordean goroldioz josia, trala-lara goroldioz josia.
- Ama, non egiten du gau-hontzak habia?
- Elizako sabaian sagutxok josia, trala-lara sagutxoz josia.

- **Kukua, Txantxangorria, Pospolina, Txepetxa,**
- **Gau-hontzak:** Hegaztiak (txoriak) dira
- **Josia:** beteta
- **Garia:** landarea. Landare hauen haziak birrinduz irina lortzen da ogia egiteko.
- **Habia:** Txorien etxea (kabia)



1. Non egiten dituzte txoriek habia? Lotu.

Kukuek ☐	☐ gari soroen erdian
Pospolinek ☐	☐ elizetako sabaietan
Txepetxek ☐	☐ txantxangorrien habietan
Gau-hontzak ☐	☐ gaztainondoan zuloetan

2. “Elizako sabaian, sagutxoak josia”. Zer esan nahi du? Aukeratu erantzuna.

- ☐ Elizetako sabaia sagutxoak egiten dituztela.
- ☐ Sagutxoak josten aritzen direla elizetako sabaietan.
- ☐ Elizetako sabaietan sagutxo asko izaten dela.

3. Aukeratu egia dioten esaldiak.

- Gariak zoro-zoroak dira.
- Gari-soroak poliki-poliki jartzen dira.
- Pospolinek poliki-poliki, kontu handiz, jartzen dituzte habiak
- Txepetxak zuhaitzaren barruan egiten dute habia.

4. Nori kentzen diete lekua kukuek?

- ☐ Pospolinei ☐ txantxangorriei
☐ Txepetxei

5. Osatu testua: Eraman erantzuna bere tokira.

Txepetxek gaztainondoen


zuloetan egiten dituzte

..... eta, gero,

.....

betetzen dituzte, txitak goxo

egoteko.



habiak

goroldioz

